

ELAK CONFEBASKEN ASMO GOLPISTA SALATU DU

**Confebask-ek ELA eta LAB paretik kentzeko legea
exijitzen du**

Bilbon, 2014.eko azaroaren 26an



ELAK CONFEBASKEN ASMO GOLPISTA SALATU DU

Confebask-ek ELA eta LAB paretik kentzeko legea exijitzen du

Espainiako Gobernuak Elkarte Sindikal eta Enpresariaren Estatutuen Gordailuari buruzko Errege-Dekretuaren zirriborro bat aurkeztu du. Zirriborro horren xedea estatutuen gordailu sistema hori moldatzea da, "erakunde sindikal eta enpresariaren estatutuen gordailuaren prozedura administratibo guztian administrazio elektronikoa ezartzeko". Horrenbestez, ez dago arazorik.

Hain zuzen, zirriborro hau dela eta erakunde sindikal eta patronalek eta gobernu autonomikoek alegazioak egin ditzakete. Prozedura honetan Confebaskek agiri bat egin du CEOEk bere egin dezan. Zer proposatu du Confebaskek?

- Artikulu bat gehitzea ofizioz edo alde batek eskatuz gero sindikatu bat erregistro horretatik ezabatzea eskatu ahal dadin. Confebasken azalpena argia da: *"Confebaskek gai honetan interes berezia du. Aski ezaguna da Euskal Herrian ELA, nagusi den sindikatuaren estrategia, zeina gainera hirugarren sindikatua, LAB, erakartzen ari den, bien artean ordezkartza sindikalaren %60 osatzen dutelarik... Gainerako eragileekin elkarrizketa sozial hori egoterik eta gauzatzerik izan ez dadin boikot dinamika bati ekin diote (arrakastaz)... eta ... gogoz saiatzen dira berez dagozkien helburuak ez direnetan, esaterako abiadura handiko tren, edota ekintza sindikalarekin oso urrunetik lotuta dauden gaietan (klausula sozialei edo arlo fiskalari buruzko legegintza-ekimenak)".*
- Confebasken arabera, ELA eta LAB ez gara sindikatuak, eta ez gintuzkete halakotzat aintzatetsi beharko. Hala dio honako pasartean: *"Noski, erakundeok nahi duten gauzetan askatasunez jardun daitezke, baina benetan ez dagokien izaera bati esker ez lukete benetan erakunde enpresarial eta sindikal direnen berezko jarduera baldintzatu eta are ezeztatzen aukerarik izan beharko".*

Hots, Confebaskek tramite hau baliatu nahi du ELA eta LAB sindikatu diren aldetik ezabatzeko mekanismo bat ezar dadin.

Hori dela eta, ELAk hau esan behar du:

1. Confebaskek oreka jakin batzuk eta kohesio soziala dituen gizarte baten oinarria hondatu nahi du. Jarrera patronal hau oso larria da, guztiz antidemokratikoa. ELA Euskal Herriko sindikatu nagusia da, afiliatorik handiena eta hauteskunde sindikaletan ordezkartzarik altuena duena. Confebaskek sarri esan izan du hau ez duela bat ere gustoko.

Confebaskek nahi du ELAk eta LABek sindikatu izaera galtzea, izan ere, defentsa kolektibo antolaturik gabe, indartsuago baita. Frankismora itzularazi nahi gaitu, hau da, ELA 40 urtez legez kanpo egon zen garai hartara. PPK patronalari honek eskatu duen guztia eman dio, eta Confebaskek orain galdegiten dio Euskal Esparrutik ez daitezela berau defenditzen duten sindikatuak ere geratu. Confebaskek aspaldian erabaki zuen lege espainiarrak ematen zionarekin fidatuko zela, beste ezerekin ez.

Klaseko sindikalismo abertzalearen aurkako egundo ikusi gabeko eraso hau ikusirik, ELAk estrategikoa den puntu bat nabarmendu nahi du: klaseko erakundeek eta ekintza kolektiboaren defentsa. Hauxe da legeek patronalari ematen dioten neurrigabeko boterea geldiaraz dezakeen errealitate bakarra. PPri gure ilegalizazioa eskatzen dionak ez du sinesten ez Lan-Harremanen Euskal Esparruan, ezta oreka sozialean ere; aitzitik, hori ahal den era guztietan borrokatzea erabaki du. ELAren aburuz, justizia eta solidaritatea oinarritzat duen eredu sozialik ez dago hau posible egiten duen indar-erlazio sindikal eta politikorik gabe.

Confebaskek proposatzen duena Margaret Thatcherrek berak ere, bere obsesio antisindikalarekin, ez zuen egin Britainia Handian. Orduan neoliberalismoak izan zitzaizkeen oztopoak kentzea zen helburua, eta sindikalismoa zen oztopo handienetako bat. Bada, ELAk berretsi egiten du langileok -pertsonarik ahulenak- gure interes eta helburuak defenditzeko aukera bat izan nahi badugu erakunde sindikal indartsuak behar ditugula, gobernu eta patronalengandik erabat autonomoak. Hori da ELA, eta hala izaten jarraituko du.

2.- Confebask erakusten ari da Estatu guztiko erakunde patronalik erreakzionarioena dela. Eskubide laboral eta sozialen aurkako gurutzada bati ekiteaz gainera, ilegalizazioaren zigorra ezarri nahi digu berari aurre egiten diogun erakundeoi. ELAk badaki patronalaren astakeria hau oso ongi kalkulatu dagoela, kontutan izanik gobernu-egoitzan ez dagoela mugarik ezartzeko gauza izan den inor. Aurrez badaki ez dela gobernuen aldetik kontrako jarrerarik izango, hitz lauso batzuk gorabehera.

Confebaskek sindikatu garen aldetik dagokigun eskubideak ukatu nahi dizkigu: zerga-politikari buruzko proposamenak egitea, Herritarren Legegintza-Ekimenak bultzatzea -azpikontratetako langileen eskubideak defenditzeko bezalakoak, Legebiltzarreraino iristeko 110.000 sinaduraren babesa izan zuena-, edota AHTari buruz hitz egiteko aukera. Confebask nahi duen gaiei buruz jardun daiteke (joan den asteburuan eskatu ditu bere zuzendari nagusiak neurri fiskal berriak eta erreforma laboralarentzako segurtasun juridiko handiagoa); aitzitik, PPren gobernuari galdegiten dio beste guztioi aukera hori galaraz diezagula. Arlo fiskalean, esaterako, Confebaskek Ogasunekin hitzartu zuen enpresek opor fiskalen laguntzarik ez itzultzea, Europak derrigortzen zuen moduan (ezkutuko akordio horrek 30 milioi € isuna ekarri zigun).

Kontua ez da gai jakin batzuri buruz aritzea; benetako arazoa da patronalaren edo botere politikoaren ez diren posizioak aldeztea. Aurrekontu- eta zerga-politikak, murrizketak, pentsioen erreforma, etab. babestuko bagenitu ez legoke arazorik. Baina disidentzia desagerrarazi nahi dute.

Confebaskek gobernuen gaineko presioaren monopolioa izan nahi du; legean bere ikuskera antidemokratikoa inposatuaz, "ate birakari" delakoekin lortzen duena baino gehiago lortu nahi du; hain zuzen, ate horretxek eman zion SEAko idazkari nagusi izandakoari Arabako Ogasun diputatu izateko aukera, eta Bizkaiko Ogasun diputatu izandakoari, CEBEKe goi-arduradun bilakatzeko.

3. ELAren iritziz, Confebask neurri hau proposatzera ausartzen da uste duelako botere politikoaren babesa duela, Eusko Jaurlaritzarena barne. Joan den urriaren 20an ELAk jakinarazi zuen bere iritzia Jaurlaritzako Enplegu sailak elkarrizketa sozialeko mahaia eratzeari buruz egindako agiriari buruz. Sindikatuak salatu zuenez, dokumentu hartan Jaurlaritzak dio bere eginkizuna dela sindikalismoaren eginkizuna zein den "mugatzea"; besteak beste esanaz sindikatuok ez badugu onartzen gobernuak proposatzen duen gizarte-eredua defenditzea, litekeena dela zigor ekonomikoak ezartzea.

Agiri hartan bertan ELA arazo gisa aipatzen zuten hainbat gaitan duen jarrera medio: elkarrizketa soziala, erakundeetako parte-hartzea edota patronalari emandako ordezkari zala zalantzan jartzea. Patronalak Jaurlaritzaren argudio bera erabiltzen du, baina

behin betiko zigor bat zehaztera ausartzen da: etsaitzat duena paretik kentzea, sindikatu izaera galaraziaz. Gogoratu beharra dago gobernuak ez zuela jakitera eman agiria egiterakoan “aholkua” eman ziotenen izenik; agiria juzkatzerakoan, ELAk esan zuen Eusko Jaurlaritzak sindikalismo bertikala defenditzen zuela. Begibistakoa da Confebaskek oso ordezkari kualifikatuak izan zituela Jaurlaritzaren “aholkulari” taldean.

Confebasken jarrera hau bat dator, bestalde, negoziazio kolektiboan hartu dituen blokeo posizioekin. Azken erreforma irakurri zuenean, patronalak erabaki zuen ez zeukala gehiago negoziatu beharrik, eta prekaritatea zein desberdintasuna areagotzeko bere asmoekin ados ez zegoen sindikalismoaren aurka jo behar zuela. Horretan ari da.

Confebasken proposamena zein larria den ikusirik, ELAko Batzorde Eragileak honako erabakiak hartu ditu:

1. Espainiako Gobernuari exijitzea bazter dezala Confebasken proposamena.
2. Kanpaina bat egitea langile-klaseak eta gizarte guztiak ikus dezaten Confebasken asmoak zein larriak diren. Kanpaina horretan ELAk askatasun sindikalerako eskubidearen aldeko ekintzak burutuko ditu; eskubide honek, gure ustez, sindikatu guztien erabateko babesa izan beharko luke. Agertzen ari den jokabidearekin Confebask demokraziarentzako arrisku bilakatu da.
3. Gai hau aztertzeko ELAk premiazko bi bilera eskatu ditu; bata, Urkullu Lehendakariarekin, eta bestea, EAJren EBBko buruarekin, bera izanik gobernu-ekintzaren ardura duen alderdi politikoa.
4. Halaber, gure balorazioaren berri emango diegu gainerako alderdi politikoei, eta hauekin ere gai hau jorrazteko bilerak egiteko prest izango gara.
5. ELAk Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ez dezala “Elkarrizketa Sozialeko mahaia” delakoa eratu, zeina abenduko lehen asterako baitago deituta. ELA eta LAB bezalako sindikatuak ezabatu nahi dituen patronal batekin mahai berean jartzea asmo hori babestea da. Ezin zaio normaltasun itxurarik eman bat ere normala ez den zerbaiti. Bestalde, Confebaskek PPri eskatzen diona aurrera ateraz gero, gu Mahai horretan ez egotea erabili egingo lukete ilegalizazio prozedura hasteko koartada gisa. Minimo demokratikoez ari gara, eta hauekiko ezin da inolako lerratzerik gertatu. Hala balitz, ezin larriagoa litzateke, eta ELAk horren arabera jokatu luke. Urkulluri galdera batzuk luzatzen dizkiogu: Bat al dator ELA eta LAB mahai horretara joaten ez bagara sindikatu izaera kentzeko aukerarekin? Prest al dago Confebaskekin elkarrizketa sozialeko mahai batean esertzera, patronalak hori eskatu duela jakinik?

ELAKO BATZORDE ERAGILEA

Bilbo, 2014ko azaroaren 26a